

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

1941

34/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituen.

215/2012 Dekretuaren bidez, KBE izendatu ziren eskualde biogeografiko atlantikoko 14 ibai eta estuario, eta onartu egin ziren ibaietan eta estuarioetan KBE guztiei aplikatu beharreko jarraibide, arau eta jardute erkideak, aipatutako dekretu horren I. eranskin gisa argitaratuta. Horren ostean, 356/2013 Dekretuaren bidez, izendatu egin zen Txingudi-Bidasoako KBEa, eta onetsi egin ziren KBE horretarako eta Txingudiko BBErako kontserbazio-neurriak; horretaz gain, dekretu horrek argitara eman zituen, II. eranskin gisa, 215/2012 Dekretuaren bidez onetsitako jarraibide, arau eta jardute erkideak.

Eskualde biogeografiko mediterraneoko ingurune hidrikoari loturiko KBEak eta BBEak izendatzeko lanak egin bitartean, egiaztatu egin da eskualde biogeografiko atlantikoko ibai eta estuarioen KBEetarako onartutako kontserbazio-arauak (jarraibideak eta arauak), gehien bat, egokiak eta aplikagarriak zirela eskualde mediterraneoan; hala ere, ingurune hidrikoari loturiko KBE eta BBE guztiei aplikatzeak aldaketa batzuk egitea eskatzen zuen.

Hori dela eta, egokitzen jo da dekretu honetan onestea ingurune hidrikoari lotuta dauden KBE eta BBEetan oro har aplika daitezkeen jarraibideak eta arauak onartzea, bai eskualde biogeografiko atlantikorako bai eskualde biogeografiko mediterraneorako, hauetan izan ezik: Urdaibaiko Biosfera Erreserba eta Gaztelugatxe Doniene. Haietarako araubidea xedatuta dago ekainaren 4ko 358/2013 Dekretuan, zeinaren bidez kontserbazio bereziko eremu izendatzen baitira lau leku, Batasunaren garrantzizko 4 leku, hain zuzen, Urdaibai eta Gaztelugatxe Donieneko eremuan; eta zeinaren bidez onartzen baitira KBE horietarako eta Urdaibaiko itsasadarreko hegaztien babes bereziko eremurako kontserbazio-neurriak.

Horren ondorioz, hor xedatutako arau orokorrak aplika dakizkieke Natura Sarean ingurune hidrikoari lotutako gune guztiei; beraz, dekretu hori indarrean jartzen den unean onartutako guneek ez ezik, etorkizunean onartzen diren tokiek ere izango dute araubide hori, gaur egun izapidetze-bidean daudeneke ere bai.

Arau orokorrak onartzeaz eta aplikazio-eremua eta edukia zehazteaz gain, xedapen honek aldi baterako araubide baten mende uzten ditu 215/2012 eta 356/2013 dekretuetan adierazitako jardute erkideak, foru-organoek haien ordezkioak onartu arte.

Horrenbestez, batetik, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Herriko Natura Babesteko Legearen testu bateginaren 22. artikuluan eta, bestetik, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. eta 45.1 artikuluetan xedatutakoarekin bat, jendaurrean jarri ondoren, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak –2015eko martxoaren 17an egindako bilkuran– eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Onartu egiten dira, dekretu honen eranskin gisa, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Dekretu hau aplikatu behar da ibaiei, estuarioei eta hezeguneei lotutako KBEetan eta BBEetan.

ES2130003 Barbadungo Itsasadarra.

ES2130004 Astondoko haremunak.

ES2130010 Lea ibaia.

ES2130011 Artibai ibaia.

ES2120004 Urolako itsasadarra.

ES2120009 Iñurritza.

ES2120010 Oriako itsasadarra.

ES2120005 Oria Garaia.

ES2120012 Araxes ibaia.

ES2120013 Leitzaran ibaia.

ES2120015 Urumea ibaia.

ES2110017 Barrundia ibaia.

ES2110023 Arakil ibaia.

ES2110020 Ega–Berron ibaia.

ES2120018 Txingudi-Bidasoa.

ES0000243 Txingudi BBE.

ES2110006 Baia ibaia.

ES2110010 Zadorra ibaia.

ES2110012 Ihuda ibaia (Ayuda).

ES2110005 Omecillo-Tumecillo ibaia.

ES2110008 Ebro ibaia.

2.– Dekretu hau aplikatu behar da ibaiei, estuarioei eta hezeguneei lotutako KBEetan eta BBEetan, gaur egun izapidetze-bidean hauek daude:

ES2110007 Arreo-Caicedo de Yusoko lakua.

ES2110011 Zadorraren sistemako urtegiak.

ES2110014 Salburua.

ES2110021 Guardiako aintzirak.

3.– Ez da aplikatuko ez Urdaibaiko KBEetan eta BBEetan ez Gaztelugatxe Gaztelugatxe Donie-neko KBEan (ekainaren 358/2013 Dekretuak onartuta).

3. artikulua.– Arau orokorren edukia.

Ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak, eranskinean jasotakoak, bi motatakoak dira:

a) Jarraibideak (J): hainbat erabilerari eta jarduerari, girori edo elementu giltzarriri buruzko xedapenak dira eta herri-administrazioen jarduerak orientatzea dute helburu.

b) Arauak (A): kontserbazio-elementuetan eta -helburuetan eragina izan dezaketen erabileren eta jardueren garapenean nahitaez bete beharreko arauak xedatzeko helburua duten xedapenak dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Foru-organoek Natura Babesteko Legearen testu bateginaren 22.5 artikuluan aipatutako kudea-keta-jarraibideak onartu arte, indarrean izango dira 215/2012 Dekretuan eta 356/2013 Dekretuan xedatutako jarduteak eta, zehatzago esanda, hauek:

a) 215/2012 Dekretuaren I. eranskinean azaldutako ibaien eta estuarioen KBE guztietan aplikatzeko jardute erkideei buruzko idatzi-zatia eta II. eranskinetik XV. eranskinera azaldutako helburuen eta jardueren tauletan adierazitako jarduteei buruzko idatzi-zatiak (215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren kontserbazio bereziko eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko dena).

b) 356/2013 Dekretuaren II. eranskinean azaldutako ibaien eta estuarioen KBE guztietan aplikatzeko jardute erkideei buruzko idatzi-zatia eta III. eranskinean azaldutako helburuen eta arauen tauletan adierazitako jarduteei buruzko idatzi-zatiak (356/2013 Dekretua, ekainaren 4koa, Txingudi-Bidasoa –ES2120018– kontserbazio bereziko eremu izendatzen duena, eta eremu horren eta Txingudi hegaztien babes bereziko eremuaren –ES0000243– kontserbazio-neurriak onartzen dituena).

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Dekretu hau indarrean jartzeaz batera, indargabetuta geratuko dira honako xedapen hauek:

1.– Eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren kontserbazio bereziko eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko den urriaren 16ko 215/2012 Dekretutik baliogabetzen dira hauek:

a) 3. artikuluko 1.a) idatzi-zatia, jardute erkideei buruzkoa izan ezik; izan ere, bera xedapen iragankorrean xedatutako terminoen arabera geratuko da indarrean.

b) 6. tituluari eta eranskinari eginiko aipamenak, 3. artikuluko 2.1 idatzi-zatian azaldutako moduan.

c) I. eranskina, ibaien eta estuarioen KBE guztietan aplikatzeko jardute erkideak izan ezik; izan ere, beraiek xedapen iragankorrean xedatutako terminoen arabera geratuko dira indarrean.

2.– Txingudi-Bidasoa –ES2120018– kontserbazio bereziko eremu izendatzen duen, eta eremu horren eta Txingudi hegaztien babes bereziko eremuaren –ES0000243– kontserbazio-neurriak onartzen dituen ekainaren 4ko 356/2013 Dekretutik baliogabetzen dira xedapen hauek:

a) 3. artikuluko 1.a) idatzi-zatia, jardute erkideei buruzkoa izan ezik; izan ere, bera xedapen iragankorrean xedatutako terminoen arabera geratuko da indarrean.

b) 6. tituluari eta eranskinari eginiko aipamenak, 3. artikuluko 2.1 idatzi-zatian azaldutako moduan.

c) II. eranskina, ibaien eta estuarioen KBE guztietan aplikatzeko jardute erkideak izan ezik; izan ere, beraiek xedapen iragankorrean xedatutako terminoen arabera geratuko dira indarrean.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ingurumenaren alorreko sailburu eskudunari baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzaren ize-nean egin ditzan legeak xedatutako izapide eta komunikazio guztiak, bai Estatuaren Administrazio Orokorraren aurrean, bai Europar Batasunarenean, eta, hala badagokio, neurriak ezartzeak eragingo duen kostu ekonomikoaren zenbatespena ere, 92/43/EEE Zuzentarauaren 8. artikulua xedatutakoa betetze aldera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko martxoaren 17an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.

ERANSKINA, MARTXOAREN 17KO 34/2015 DEKRETUARENA

JARRAIBIDE NAGUSIAK ETA ARAU OROKORRAK

Jarraibide nagusiak

KODEA	JARRAIBIDE NAGUSIAK
1.J	Beharrezkoa ikusten da lurraldearen jabeak eta erabiltzaileak KBE/BBEen balioen eta baliabide naturalen kontserbazioan eta erabilera egokian inplikaturiko dituzten kudeaketa formulak bultzatzea. Horren haritik, sektore pribatuak eta udalek KBE/BBEetako kontserbazio jarduerak finantzatzea eta/edo kudeatzea errazten duten formulak bultzatuko dira, bai-eta herritarrek, boluntariotzaren bitartez, jarduera horietan parte hartzea ere. Azken batean, lurraldea zaintzea helburu duten borondatezko akordioak sustatuko dira; hain zuzen, jabeen, zainketaz arduratzen diren erakundeen eta beste eragile publiko eta pribatu batzuen arteko etengabeko lankidetzak bultzatuko dutenak.
2.J	Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (BBE) izendatzearekin lortu nahi diren helburuak iristeko beharrezkoak diren kontserbazio neurriak eraginkortasunez gauzatzeko Europako Batzordeak zehaztutako kofinantzaketa komunitarioko bideak aplikatuko dira. Ildo horretan, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (LGENF) –zeina, Euskadin, Landa Garapen Iraunkorreko Programaren (LGIP) bitartez artikulatzen baita–, beste batzuen artean, lehen mailako tresna da Natura 2000 Sarea kudeatzeko.
3.J	KBE/BBEen esparruetan (ekonomikoak, nekazaritza-abelzaintzakoak, basogintzakoak, industrialak, etab.) eragina duten eragileen eta sektoreen prestakuntza, sentsibilizazioa eta aholkularitza bultzatuko da, Naturagune Babestu hauetarako planteatutako helburuak iristeko eta KBE/BBEen izendapenarekin abian jartzen diren kontserbazio neurriak eraginkortasunez aplikatzen direla lortzeko xedearekin.
4.J	Komunikazio Plan bat zehaztuko da eta bertan Natura 2000 Sarerako ezarritako kontserbazio helburuak lortzen lagunduko duten neurrien aplikaziorako laguntza komunitarioen eta beste laguntza publiko batzuen onuradun potentzialen arteko informazio eta sustapen jarduerak aurreikusiko dira.
5.J	Halaber, aurreko epigrafeetan adierazitakoaz gainera, beharrezkoa ikusten da administrazioak balio ekologiko handiko lursailak eskuratzeko, errentan hartzeko, usufruktuan edo zortasunean hartzeko edo antzeko beste figura batzuk eratzeko neurriak bultzatzea, bereziki, KBE eta hegaztientzako BBEEtako elementu giltzarrak barruan dituztenean, haiek arrisku larrian daudenean, edota egokitasun-irizpideek hala aholkatzen duten kasuetan.

KODEA	JARRAIBIDE NAGUSIAK
6.J	<p>Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 46. artikuluari jarraiki, behar adina ahalegin egin behar dira Natura 2000 Sarearen barneko eta kanpoko ekologia-koherentzia hobetzeko. Horretarako, paisaiako elementu eta lurralde-eremu hauek kontserbatu edota garatuko dira: migrazioarako, banaketa geografikorako eta fauna eta flora basatietako espezieetako populazioen arteko genetika-trukerako funtsezkoak direnak edo berebiziko garrantzia dutenak. Horrenbestez, neurriak ezarri behar dira helburu horiek lortu ahal izateko.</p> <p>KBE/BBE horietan ibaiak eta estuarioak daudenez, ekologia-lotura ezartzen duen funtsezko elementua ibai-lurraldea bera da. Behar besteko zabalera eta jarraitasuna izango du lurralde horrek, ibaiaren dinamika hidrogeomorfologikoa kontserbatzeko edo lehenera ekartzeko, ekologia-egoera egokia izateko, ur-goraldiak modu naturalean erregulatzeko, urpean gera daitezkeen eremuen antolamenduarazoak ebazteko, ibai-paisaiak hobetzeko eta indartzeko eta ibaiertzean korridore jarraitu bat lortzeko adinakoa (ur- eta lur-korridoreak, eta ekologia-lotura bultzatzen duten sastrakadi eta zuhaitzi autoktonoak ere bai, gaur egun lotura hori kaskarra baita kasu gehienetan). Hala, ibai-sistemaren aniztasun ekologikoa eta funtzio bioklimatikoa ziurtatuko lirateke.</p> <p>Ildo horretan, bai Natura 2000 Sarearen esparruetan, bai mugako eremuetan eta bai KBE/BBEak beren artean lotzen dituztenetan, berariazko neurriak hartuko dira erriberako landaredia eta landare-hesiak berreskuratzeko lursailen mugetan, mendi-bideen bazterretan, ibai-sareetan eta drainatze-sistema artifizialeetan; neurriak hartuko dira, orobat, lotura ekologikoa laguntzen duten elementuak ezabatzea edo murriztea kontrolatzeko. Xede horretarako egokituko diren finantzaketa bideak ezarriko dira.</p>
7.J	<p>Natura 2000 Sarearen koherentzia hobetze aldera, mugakide diren autonomia erkidegoetako administrazioekin koordinazio lana egingo da, helburuak bateragarriak izan daitezzen eta, beharrezkoa izanez gero, bi lurraldeetako eremuetara hedatzen diren kontserbazio neurriak bateratu ahal izan daitezzen.</p>
8.J	<p>Horrez gain, intereseko elementu horiekin zerikusia duen ikerketa sustatuko da, oinarritzkoa zein aplikatua. Horren haritik, ikerketa-azterketen prozesuak, faseak eta emaitzak jakinaraziko direla ziurtatuko da, bai eta eremu horien plangintzari eta kudeaketari dagozkionak ere.</p>
9.J	<p>Herri-administrazioek garatzen dituzten ingurumen-hezkuntzako programen bidez honako hauei buruzko ezagutza sustatuko da: Natura 2000 Sarea, eta biodibertsitatea kontserbatzeko ibaietako eta estuarioetako habitatek eta espezieek duten balioa. Gainera, haiek zaindu beharraz kontzientziatu behar dute gizartea. Programa horien helburua herritar guztiak izango dira, batetik, eta Natura 2000 Sarearen esparruan garatzen diren erabilerekin eta jardurekin zerikusia duten teknikariak, bestetik.</p> <p>Era berean, Natura 2000 Sareari buruzko informazioa emateko eta sentsibilizatzeko jarduerak eta jarraibideen eta arauen garrantziari buruzko informazioa hirigintzarekin eta lurralde-antolamenduari zerikusia duten herri-administrazioetako teknikariei ere jakinaraziko zaizkie.</p>
10.J	<p>Areagotu egingo dira zaintza lanak KBE/BBEen esparruan, tokia horrela izendatzea eragin duten habitat eta espezieen kontserbazio helburuak arriskuan jar ditzaketen baimendu gabeko erabilerak eta praktikak eragoztearren.</p>

Arau orokorrak

KODEA	ARAU OROKORRAK
1.A	<p>Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 45.2 artikuluan eta Euskadiko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoaren indarrez, Natura 2000 Sarearen barruko lekuak Naturagune Babestuak dira. Hortaz, lurralde-antolamendurako tresnek eta hirigintzarako planeamenduak aipatutako zertzelada hori islatuko dute eta eremu horietan presentzia duten habitat naturalen eta espezieen kontserbazioa bermatu beharko dute. Horretarako, dokumentu honetan bildutako kontserbazio irizpideak, helburuak eta neurriak gehituko dituzte.</p>
2.A	<p>EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala aplikatzeko orduan, KBE/BBEen esparru osoa Lehentasunezko Interes Naturalistikoko Gune gisa hartuko da eta esparru hori, era berean, esandako planaren D.2 paragrafoan definitutako ibilguaren babes eremua izango da. Beraz, KBE/BBEetan, Lurralde Plan Sektorialak eremu horientzat ezarrita duen –eta ondoren jasotzen den– erabilpen-erregulazioa aplikatu beharko da, dokumentu honetan hainbat erabilerrari buruz ezarritako jarraibideak eta arauak aplikatzeaz gainera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Landa eremuari dagozkion bazterretan, gutxienez, 50 metroko atzerapena errespetatuko da Administrazio Hidraulikoak zehaztutako muga-lerrotik, ohiko ur-goraldi handieneko marratik edo ibilguaren ezpondaren gailurretik neurtuta, dagozkionaren arabera. Lursail naturala aldatzen duen eskuhartze orotan aplikatuko da atzerapen hori (edozein motatako eraikin, instalazio edo eraikuntzatan, finkoetan zein desmontagarrietan; lur-berdintzeetan; lur-higiduretan, eta abar). Salbuespenak izango dira herri-lanei eta azpiegitura-instalazioei dagozkienak edo behar bezala justifikatutako kultura-ondarea babesteko ekintzei dagozkienak. • Halaber, landa-eremuko ertzetan, aurreko puntuko erabileren oinarrizko araudia aplikatuko da, aldaketa hauekin: Debekatuta daude erabilera hauek: <ul style="list-style-type: none"> ○ Hazkunde urbanistikoak ○ Nekazaritza-industriak, arrain-haztegiak barne. ○ Erauzketa-jarduerak. ○ Zerbitzu ez-linealen instalazio teknikoak, A eta B motakoak, uraren ziklo integralarekin eta urtegien funtzionalitatearekin lotura dutela behar bezala frogatzen denean izan ezik. ○ Hondakin solidoen zaborteziak eta hondakindegia, baita 3 km² baino gutxiagoko adar-arroa duten erreketan ere. ○ Egoitza-erabilera isolatua. ○ Instalazio arriskutsuak.

KODEA	ARAU OROKORRAK
	<ul style="list-style-type: none"> ES2110011 <i>Zadorraren sistemako urtegiak / Embalses del sistema del Zadorra</i> KBEaren kasuan, Plan Hidrologikoaren Gune Babestuen Erregistroan jasota dagoen hiri hornikuntzarako ura hartzen den tokia denez, esandako erregistroko ur-bilketak babesteko plangintza hidrologikoaren esparruan (babes-perimetroak) idazten diren antolamendu-dokumentuetan ezarritakoa bete beharko da. Aipatutako antolamendu-dokumentuen onarpena gorabehera, 200 metro zabaleko zerrenda bat egongo da, urtegiaren inguruan, babes-eremu gisa, urtegiaren ohiko gehieneko mailatik neurtuta, betiere, presako uretatik gora eta arro isurlearen barruan. Babes-eremu horretan, gorago aipatutako erabilera debekatuen araubidea aplikatuko da.
3.A	<p>Euskadiko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 19.2 artikuluan ezarritakoaren eraginetarako, Babes-eremu Periferikoa KBE eta/edo hegaztientzako BBEaren berariazko kudeaketatresnan zehaztutakoa eta lekuaren Mugaketa Mapan islatuta agertzen dena izango da. Halakorik ezean, eta izaera orokorrez, ondorengo Babes-eremu Periferikoak ezartzen dira ingurune hidrikoarekin lotura duten KBEentzat:</p> <ul style="list-style-type: none"> Babes-eremu Periferikoa ibaietako KBE eta/edo hegaztientzako BBEetan: 100 metro zabaleko babes zerrenda bat, espazioaren kanpoko mugatik neurtuta. Babes-eremu Periferikoa estuario eta hezeguneetako -itsasertzeko zein barrualdeko- KBE eta/edo hegaztientzako BBEetan: 200 metro zabaleko babes zerrenda bat, espazioaren kanpoko mugatik neurtuta. Babes-eremu Periferikotik kanpo geratzen da KBE/BBE indarrean jartzeko unean hiri-lurzoru kontsolidatu gisa dagoena, nahiz eta lurzoruaren kategoria horretako urbanizazio, eraikuntza eta azpiegitura berriek betiere errespetatu beharko dituzten kontserbazio arau hauetan ezarritako atzerapenak. <p>Naturagune Babestuko beste figura batekin izendatu diren Natura 2000ko tokietan, Babes-eremu Periferikoa esandako espazioen izendapen- eta plangintza-tresnetan ezarritakoa izango da, KBE eta/edo hegaztientzako BBEen izendapenean beste eremu bat ezartzen denean salbu. Babes-eremu Periferikoetan, Habitatariburuzko Zuzentarauaren 6.3 artikuluko prebentzio-araubidea eta esandako esparruari dagozkion dokumentu honetako babes arauak egongo dira indarrean.</p>

KODEA	ARAU OROKORRAK
4.A	<p>Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, tokiaren kudeaketarekin zerikusi zuzena ez duten edo kudeaketarako beharrezkoa ez den plan, programa eta egitasmo oro, toki horiei nabarmen eragiten badie bakarka zein beste plan edo proiekturen batekin batera, behar bezala ebaluatuko da, eta aztertuko da zer ondorio eragingo dituen toki horretan, toki horretarako ezarritako kontserbazio helburuak aintzat hartuta.</p> <p>Esandako ebaluazioaren ondorioak kontuan hartuta eta aipatutako 45. artikulua-ren 5. paragrafoan ezarritako baldintzaren pean, organo eskudunek planak, programak edo proiektuak onartzeko edo baimentzeko, ezinbestekoa da aurretik ziurtatzea ez diotela toki horretako osotasunari kalterik eragingo, eta beharrezkoa bada, aurretik jendaurrean jarriko da delako plana, programa edo proiektua.</p> <p>Aurrekoaren kaltetan izan gabe, leku bakoitzean giltzarri jotzen diren habitaten, espezieen, edota babes bereziko araubidean katalogatuta dauden espezieen alterazioa edo deuseztapena ekar lezakeen edozein plan, programa, proiektu edo aktibitatek ondorio garrantzizkoak izan litzake, eta, hortaz, berorien ebaluazio egoki bat egin beharko da.</p> <p>45. artikuluan aurreikusitakoaren eraginetarako, ebaluazio egoki hori ingurumen ebaluazioaren araudian aurreikusitako prozeduren barruan gauzatu beharko da, toki bakoitzari dagozkion kontserbazio helburuak kontuan hartuta.</p>
5.A	<p>Izaera orokorrez, debekatua dago erriberako habitat naturalak eta lotura funtzioa betetzen duten elementuak –adibidez, lursailen mugetako, bide bazterretako, drainatze-sistema natural edo artifizialeko eta abarretako landare-hesiak eta gainerako landare formazioak– aldatzea eta/edo deuseztatzea dakarren zeinahi jarduera. Salbuespen gisa baimendu ahalko dira jarduera horiek, interes publikoaren arrazoi justifikatuengatik eta egiaztatu ondoren ez diotela kalte egingo lekua-ren osotasunari, kasua hala denean, dagokion ingurumen-ebaluazioko prozedura-ren pean jarri ostean.</p>
6.A	<p>Dokumentu honetan jasotako arauen kaltetan izan gabe, KBE eta hegaztientzako BBEen esparruan, aplikatzekoa izango da kosta, urak eta urpean gera daitezkeen sailen arloan agindutako guztia, eta babes handieneko irizpidea gailenduko da beti, murriztaileena, alegia.</p>
7.A	<p>Hezeguneetako KBE eta/edo hegaztientzako BBEetan, aplikatzekoa izango da, orobat, EAeko Hezeguneak Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala, eta babes handieneko irizpidea gailenduko da beti, murriztaileena, alegia.</p>

**ERABILEREI ETA JARDUEREI BURUZKO
JARRAIBIDEAK ETA ARAUAK**

Kontserbazioa eta ingurumena hobetzea

Jarraibideak

KODEA	KONTSERBAZIOARI ETA INGURUMENA HOBETZEARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
1.J.1	Ibai eta estuarioetako dinamika eta morfologia kontserbatzera eta berreskuratzen ez ezik, landare formazio naturalen eta uretako habitatei loturiko flora eta fauna populazioen kontserbaziora eta hobekuntzara bideratutako jarduerak bultzatuko dira.
1.J.2	Horren haritik, lehentasuna izango du erriberako basoei eustekak eta haiek berreskuratzeko, luzetara zein zabaletara; horretarako, erriberako landaredirik ez duten ibaiertzak basoberritu egingo dira eta bertakoak ez diren espezieak dituztenetan jatorrizko landaredia jarriko da, ibai-ibilgu osoan zehar landaredi naturaleko banda jarraitua eratu ahal izan dadin helburu hartuta. Ere horietan landatze lanak egitean, ez da zorua higitzea eragingo duen lanik egingo. Halaber, ibai inguruneari loturiko biodibertsitatearen kontserbazioari mesede egingo dion giro-dibertsifikazioa lortze aldera, egur hondarren (adarrak eta enborrak) presentzia bultzatuko da ibilguan, betiere, ikuspegi hidraulikotik, presentzia horrek ez badu arriskurik eragiten.
1.J.3	Haltzadiekin eta lizardiekin batera, beste baso hostozabal batzuk eta landarehesiak haztea sustatuko da, luzetara zein zeharretara, izan ere, zenbait tartetan, denak konbinatzen baitira erriberako landaredia konektatzeko. Berriazko azterlanak egingo dira ingurumen aldetik kalitatekoak bezain hauskorak diren eremu horien arteko lotura ekologikoa egiteko espazio giltzarri egokiak zehazteko eta neurri zehatzak hartuko dira konexio ekologiko horien hobekuntza lortzeko.
1.J.4	Paisaiako beste elementu berezi batzuen presentzia eta kontserbazioa ere sustatuko da: espezieek habiak egiteko, babesteko eta beren bizi-zikloa osatzeko erabiltzen dituzten tokiak dira, hala nola, ibar-basoak, ur geldiak, hezeguneetako landaretzak, baso txikiak eta aintzirak, sastrakak, zuhaitz bakanak, zuhaitz eta enbor zaharrak, motzondoak, haitzuloak, zenbait eraikin, eta abar.
1.J.5	Lurzoruak hidromorfikoak direnez, sentiberatasun berezia diote lurra zapaltzeari eta idortzeari. Horregatik, ibai-bazterretako eta erriberetako aprobetxamendu eta jarduerentzat baimenak ematean, kontuan hartuko dira ezaugarri horiek, eta behar-beharrezkoa denean bakarrik erabiliko dira makineria astunak, eta ahalik eta gehien mugatuko dira leku horietan bideak egitea, ibilgailuen joan-etorriak eta ibilguarekiko gurutzaketak eta drainatzeak. Halaber, ezaugarri edafikoei eragitea eragotzi behar da, bai eta ur-inguruneetako ertzen egonkortasunari eragitea ere.

KODEA	KONTSERBAZIOARI ETA INGURUMENA HOBETZEARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
1.J.6	<p>Bertakoak ez diren espezie inbaditzaileekin lotuta, biodibertsitatearen galera eragozteko, haiek desagertzea eta/edo kontrolatzea helburu duten jarduerak sustatuko dira, batez ere tokiko kontserbazio helburuei arrisku handiena eragiten dieten espezieena (zebra-muskuilua, bisoi amerikarra, karramarro seinaleduna, karramarro gorria, kanpoko flora inbaditzailea, etab.).</p> <p>Estuario inguruneetan dauden espezie inbaditzaileen zerrenda luzea denez, toki bakoitzeko kontserbaziorako jarduera espezifikoaren artean, zehaztu egiten da zer espezie komeni den gehien desagertzea.</p> <p>Batasunaren intereseko espezieen kontserbazio-egoerari buruzko jarraipena egin ondoren, egiaztatzen bada inbaditzailezat katalogatutako espezieen haztegi-tako banakoak dabiltzala ingurunean, erakunde eskudunek zenbait formula aztertuko dituzte, espezie horiek inguruan aska daitezzen eragozteko, eta horien artean haztegi horiek kokatzeari buruzko arauak eman daitezke. Bien bitartean, prebentzio-neurri egokiak eta nahikoak hartzea eskatuko zaie haztegiei ihesak, jaregiteak eta isurketak eragozteko.</p>
1.J.7	<p>Estuario ingurunean, helburu nagusia izango da hareatzekin eta estuarioekin zerikusia duten habitatak erabat kontserba daitezzen bultzatzea; beraz, habitak horiekin zerikusia duten landaredi- eta fauna-komunitateak zorrotz babesten direla ziurtatuko da, bai eta haien dinamika hidrauliko bereizgarriari eusten zaiola ere. Horretarako, estuarioko jalkitze prozesu naturala eta ur gazia eta geza nahasteko prozesua alteraziorik gabe gauzatzen direla bermatu beharko da, bai-eta urak behar bezalako kalitate maila duela ere.</p>
1.J.8	<p>Estuario ingurunearen eta lehorreko ingurunearen arteko ekologia-loturak berebiziko garrantzia du, ekosistemek (ibaikoak eta itsasokoak) bat egiten duten ingurunean. Ekologia-lotura hobea izan dadin, erriberako landare-formazio helduak era daitezzen bultzatu behar da, eta halaber, faunaren joan-etorria eragozten duten oztopoak kendu behar dira.</p>
1.J.9	<p>Natura 2000 Sareko tokiren bateko eremu bati eragiten dion plan edo proiektu sektorial orok, ingurumen eraginak prebenitzeko eta albat gehien murrizteko neurriez gain, honako hauek ere hartuko ditu bere baitan: biodibertsitateari efektu positiboak eta ebaluagarriak eragingo dizkioten eta KBE/BBEaren kontserbazio helburuak lortzea bultzatuko duten neurriak.</p>

Arauk

KODEA	INGURUMENAREN KONTSERBAZIOARI ETA HOBEKUNTZARI BURUZKO ARAUA
1.A.1	<p>Erriberako basoa berreskuratzea edo lehenera ekartzea beharrezkoa den tarreetan, ibaiertzetan edo inguruko landaredi naturalean berezkoak diren tokiko zuhaitz- eta zuhaixka-espezieetako aldaxkak eta haziak erabiliko dira (haltzak, lizarrak, sahatsak, etab.). Eskualde bakoitzean berezkoak diren komunitateetako landaredi sailetan oinarritutako landatze-modulu heterogeneoak erabiliko dira¹. Landareak irregularki landatuko dira, landaredi formazioetan ahalik eta naturaltasun handiena lortzeko helburuarekin.</p> <p>Ingurumena berreskuratzeko eta/edo lehenera ekartzeko neurriak aurrez planifikatu behar dira, lanak, ahal dela, geldialdi begetatiboaren garaian gauzatzeko, obrak amaitu eta al bait denbora laburrenean, eta behar diren neurriak hartu beharko dira landare espezie inbaditzaileak zabaltzea eta ugaltzea ekiditeko.</p>
1.A.2	<p>KBE/BBEen esparruan egiten diren lehengoratzeko lanek kontuan hartu beharko dituzte kontserbazioaren xede diren faunako espezieen eskakizun ekologikoak eta kume-hazkuntzarako aldi kritikoak. Era berean, proiektu edo jarduera horiek haien egikaritzatik KBE/BBEetako elementu giltzarrietara erator daitezkeen balizko ondorioen segimendu programa bat eduki beharko dute jasota.</p>

Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak

Jarraibideak

KODEA	NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO ERABILERARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
2.J.1	<p>Tokian gauzatzen den nekazaritzako eta abeltzaintzako kudeaketak helburu hau izango du: dauden ustiapenei eustea, eremuko natura-balioen kontserbazioarekin bateragarri izanik.</p>
2.J.2	<p>Habitat mota jakin baten kontserbazioa nekazaritza tradizionalari eustearen mende baldin badago, erabilera hori sustatuko da nekazaritza eta ingurumeneko ustiapen-kontratuen bidez, KBE/BBEak babesteko berariazko neurriak aplikatzeko. Bitarteko horiek xede horretarako ezartzen diren Europako kofinantzaketa tresnen garapenetik sor daitezke eta administrazioaren eta ustiapenen titularren arteko kontratuzko kudeaketaren barrukoak izango dira; hain zuzen ere, horiexek izango baitira tresna printzipalak nekazaritzako irabaziak eta izadiari lotutako balioen kontserbazioa bateragarriak izan daitezen.</p>

¹ Ikus *Ibaien eremuko ingeniariak naturalistikoko tekniken eskuliburua*, 2. kapituluko 8.3 paragrafoa «Euskadiko landaredia». Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Uren Zuzendaritza:
http://www.uragentzia.euskadi.net/u81-0003/es/contenidos/informe_estudio/tecnicas_ingenieria_naturalist/es_ingnat/indice.html

KODEA	NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO ERABILERARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
2.J.3	<p>Batasunaren intereseko habitaten ezaugarrien eraldaketa nabaria lekarketen nekazaritza-abeltzaintza praktikak areagotzea ekidingo da, lursailen mugetako landare-hesien, ureztatze kanalen eta drainatze sistema naturalen ertzetan jaiotzen den landaretzaren eta 1.J.4 paragrafoan aipatutako paisaiako elementu berezien galera eragozteko. Aldiz, berorien presentzia sustatuko da eta halakoen azalera, konplexutasuna eta funtzionalitatea handituko dira beharrezkoak ikusten diren kofinantzaketa neurriak artikulatuz, esate baterako, EAEko Landa Garapen Iraunkorreko Programako laguntzak.</p>
2.J.4	<p>Ibaietzarekin lotutako landaredi natural gehiago edukitzea sustatuko da; horretarako, Europar Batasunaren laguntzekin zerikusia duen lurren erretiratzea ibai-lurraldearen eremuan egingo da, batik bat, 6.J jarraibidean zehaztu den bezala, eta, bereziki, herri-jabari hidraulikoaren babeserako 5 metro zabaleko zortasun-eremuaren zerrendan eta 10 urtetik behingo ur-goraldietan urpean gera daitezkeen lursailetan. Bertako ibaiertzeko landaredia berreskuratzea bultzatuko da eta ingurune ekologikoaren funtsezko alterazioa ekar dezaketen laborantza lanak ekidingo dira. Laguntzak jarriko dira martxan eremu horiek, pixkanaka, laborantza modu jasangarriagoetara birmoldatzea sustatzeko xedez eta ibaien dinamikarekin lotura duten erribera-eremuek, mailaz maila, suspertzera egin dezaten.</p>
2.J.5	<p>Abere zamak doitu egingo dira gehiegizko larratzeak ekiditeko ibaiertzen eta hezeguneen inguruetan eta lurzorua azalera-ezaugarrien alterazioekiko sentiberak diren habitatan, hala nola ur-zohikatz habitatan. Era berean, ganaduari ez zaio utziko ibilgura eta ibaiaren ertzetara heltzen, baina horretarako bitartekoek ezingo dute eragotzi ibai-korridorean zehar basa espezieak batera eta bestera igarotzea; hortaz, beste bitarteko batzuk ipini beharko dira abereen presentziak aldatutako tartetan haiei edaten emateko.</p>
2.J.6	<p>Ibai, estuario eta hezeguneetan, ongarri kimikoen eta landareen osasunerako produktuen erabilera ahalik eta urriena duten nekazaritza praktikak sustatuko dira, nekazaritza ekologikoarekin eta integratuarekin lotura dutenak, adibidez. KBE/BBEaren organo kudeatzailea adi egongo da fauna eta flora basatiarentzat toxikotasun apaleko edo gabeko pestizidak erabil daitezzen, gomendatutako dosi txikienetan, eta prebentzioz edo ureztatze sistemaz aplikatu ez daitezzen.</p> <p>Abenduaren 22ko 390/1998 Dekretuaren bidez onartutako Nekazaritzako Jardunbide Egokien Kodea aplikatzea sustatuko da eremu hauetan.</p>
2.J.7	<p>Ibai eta estuarioen dinamika berreskuratzeke, eta itsasadarren, ibaien eta inguru-nearen arteko lotura bultzatzeko, ibaiertzeko lubetak, babesak eta nekazaritza eremuetako drainatze-sistemak kentzea sustatuko da, baldin eta inolako funtziorik betetzen ez badute, laborantza jarduerarik ez dagoelako edo laborantza bateragarriekin ordeztu direlako, baso-landaketekin, esaterako. Eragotzi egingo da, halaber, horrelako sistema berririk egitea eta laborantza aktiboetatik kentzea sustatuko da.</p>

KODEA	NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO ERABILERARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
2.J.8	Sega-belardiei dagokienez (Batasunaren intereseko habitata, 6510 EB KODEA), sustatu egingo dira habitatei eustearekin bateragarriak diren nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilera tradizionalak. Laguntzak sustatuko dira horretarako, egon daitezkeen kofinantzaketa moduak erabiliz, adibidez, EAeko Landa Garapen Iraunkorreko Programan sega-belardien kontserbaziorako aurreikusita daudenak.
2.J.9	3.J eta 4.J jarraibideetan adierazitakoaren ildo beretik, ahalegin berezia egingo da nekazaritza-sektorea prestatu eta haiei informazioa emateko, Natura 2000 Sarearen helburuei, konpromisoerik eta aukerik dagokienez.
2.J.10	Egun existitzen diren nekazaritza azpiegituren integrazio ekologikoa eta paisajistikoa bultzatuko da, eta ingurumena suspertzeko irtenbideak eta neurriak planteatuko dira KBE eremuetan eta Natura Sareko eremuen arteko lotura ekologikoa egiten duten esparruetan. Irizpide hori ureztatze-plan eta -proiektuei, eta lur zatiak biltzeko proiektuei ere aplikatzekoa izango da.

Arauk

KODEA	NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO ERABILERARI BURUZKO ARAUAK
2.A.1	Ekainaren 7ko 112/2011 Dekretuaren bidez onartutako Nekazaritzako Jardunbide Egokien Kodea aplikatuko da KBE/BBEetan.
2.A.2	Nekazaritza eta abeltzaintza jardueren praktikak bateragarriak izan beharko dute habitat naturalen kontserbazioarekin, bai-eta espezieek habiak egiteko eta babes-teko erabiltzen dituzten paisaiako elementuen eta, I.J.4 puntuan aipatu bezala, populazioak harremanetan jartzen eta barreiatzen laguntzen duten lotura elementuen babesarekin.
2.A.3	Abereentzako itxiturak egitean, fauna basatia batetik bestera ibiliko eta mugituko dela ziurtatzeko beharrezko baldintzak beteko dira, baita haiek hiltzea eragozteko ere. Gutxienez, 5 metro atzerago ipiniko dira itxiturak, jabari publiko hidraulikoaren muga-lerrotik edota administrazio hidraulikoak zehaztutako ur-goraldi handieneko marratik neurtuta. Halakorik ezean, distantzia hori ezpondaren gailurretik neurtuko da.
2.A.4	Administrazio hidraulikoaren ardura izango da Jabari Publiko Hidraulikoaren erregelamenduko 126 bis artikulua bete dadin zaintzea, zeinaren xedea ibaiaren jarraitasuna bermatzea baita, eta ez uztea ibaiaren aldamenetan defentsako obrarik egin dadin, ibilguaren jarraitasuna eragotzi edo oztopatu dezaketen ezponda edo harresirik, alegia. Salbuespenezko kasuren batean, higadurak eragozteko, lursail pribatuak jaustea eragozteko edo azpiegiturei eusten dieten lurak erortzea ekiditeko defentsaren bat eraikitzen bada, ez da lurzorua mailatik gora igoko eta ez du ibaiaren dinamika aldatuko, eta teknikoki ahal den kasu guztietan, ingeniari naturalistikoko teknika bigunen bidez diseinatuko dira esandako defentsa-erakuntzak. Nolanahi ere, nahitaez ebaluatu beharko da aurretik zer ondorio eragingo dituzten jarduera horiek tokiko kontserbazio helburuetan.

KODEA	NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO ERABILERARI BURUZKO ARAUAK
2.A.5	Lur zatiak biltzeko proiektuen edo ureztatze-sistema berriak instalatzeko proiektuen kasuan, ez dute herri-jabari hidraulikoa okupatuko, ez-eta haien babeserako zortasun-eremua ere, ezin baita lurzoru naturala aldatzea eragingo duen esku-hartzerik gauzatu (mota guztietako instalazioak edo eraikuntzak, finko nahiz desmuntagarriak –esaterako, kutxatilak, erretenak, hodiak– eta ponpaketarekin zerikusia duten beste azpiegitura batzuk; lur-berdinketak, lur-mugimenduak, betelanak, nekazaritza-bideak, obretarako materialen maileguak, basoetako pistak, bideen zabalketak, etab.). Hortaz, eremu horretan gauza daitezkeen erabilerek eta jarduerak tokiko kontserbazio helburuak betetzea izango dute helburu. Era berean, erriberako landaretza eta 1.J.4 puntuan aipatutako paisaiako elementu bereziak mantenduko dira. Nolanahi ere, proiektu horiek baimendu ahal izateko lekuaren osotasunari ez diotela kalterik egingo egiaztatu beharko da, dagokien ingurumen ebaluazioko prozeduraren pean jarri ostean.

Basogintzako erabilera

Jarraibideak:

KODEA	BASOGINTZAKO ERABILERARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
3.J.1	KBEen eta hegaztientzako BBEen barruan gauzatzen diren basogintzako erabilera eta jarduerak baso-lurren kudeaketa jasangarriko irizpideak aplikatuta garatu beharko dira; hortaz, basogintza-plangintza beste bitarteko bat izango da eremuko natura-balioak kontserbatzeko, eta basogintzako baliabideen ustiapena eta balio horien kontserbazioa bateragarriak izan daitezkeen. Izan ere, hala, tokian dauden baso-masa autoktonoen kontserbazioa eta bilakaera naturala bultzatuko baita.
3.J.2	KBE/BBEetan eta haien isurialdeko arroan dauden erabilera publikoko mendien kudeaketari dagokionez, antolamendurako proiektuek ondorengo irizpide hauek jaso beharko dituzte. Eta irizpide horiek berberak sustatuko dira eremu horretan dauden titulartasun pribatuko mendien ustiapen-sistemetan: <ul style="list-style-type: none"> a) Jasangarritasun irizpideak eta ingurumenaren kontserbaziorako irizpideak bere baitan hartuko dituen baso-kudeaketa sustatzea, eta eremuan dauden baso-masa autoktonoen kontserbazioa eta bilakaera naturala bultzatzea. b) Lurzoruaren jabetza publikoa den eremuetan behinik behin (Herri Basoetan eta Erabilera Publikoko Mendietan), eremu babestuko baso-masak lehenera ekartzeari sustatuko da, hots, tokiko berezko landaretza potentzialeko espezie autoktonoz jantzitako mendia berreskuratzea. c) Arbola zaharrak errespetatzea eta kontserbatzea, oso ahul daudenak edo hilda daudenak barne, honako hauek izan ezik: pertsonentzat edo ondasunentzat arriskutsuak izan daitezkeenak edo ibilguaren ahalmen hidraulikoa oztopa dezaketenak, zubiak daudelako edo traba ditzaketen beste elementu batzuk daudelako, edota ur-gordaldien ondorioa handiagoa egin dezaketelako.

KODEA	BASOGINTZAKO ERABILERARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
	<p>d) Egur hila egon dadin sustatzea, lurrian zein zutik, gutxienez 20 m³/ha-ko erlazioa osatzeko adina. Horretarako, baso-lanak egin ondoren bertan utziko da egur hila, baina pilaketarik sortu gabe. Lehendik dauden egur hilen hondakinak bere horretan utziko dira.</p> <p>e) Egin beharreko basogintzako lanak egitean, ez kaltetzea dagokion espeziearekin batera dauden espezie autoktonoak, direla zuhaitzak direla zuhaixkak.</p> <p>f) Masen arteko jarraitasuna erraztea, bai eta haien eta ibai-ingurunearen artekoa ere.</p> <p>g) Basogintzako eginkizunen egutegia bertan dauden fauna-espezieetara egokitzea; hortaz, basogintzako lanak ez dira gauzatuko Batasunaren intereseko fauna-espezieak eta, oro har, eskualdearen interesekoak egoera ahulenean dauden denboraldian.</p> <p>h) Ibai-sarera egiten diren solido esekien, landareen osasunerako produktuen eta pestiziden isurketak minimizatzea. Horretarako, behar adina neurri ezarriko dira, solido esekiak dituen isurketa-ura ez dadin iritsi lurrazaleko uretara. Irizpide hori eremu babestuaren isurialdeko arroan dauden baso-ustiapen guztiei aplikatuko zaie.</p> <p>i) Ahalik eta baso-pista gutxien egitea ahalbidetzen duten metodoak sustatuko dira egurra ateratzeko. Izan ere, helburua hau da: Batasunaren intereseko habitatak eta/edo espezieak dauden eremuetarako sarbidea mugatzea eta haiek ahalik gutxien zatikatzea.</p>
3.J.3	<p>KBE/BBEen eremuan, eta, betiere, ibilgutik hurbileneko 15 metroko zerrendan eta 10 urtetik behingo ur-goraldietan urpean gera daitezkeen KBE/BBEko lursailetan, habitat naturalak eta landaretza autoktonoa kontserbatzeko, hobetzeko eta bultzatzeko jarduerak sustatuko dira. Administrazioako organo eskudunek akordioak eta neurriak bultzatuko dituzte kanpoko baso espeziez osatutako arboladien ordez, pixkanaka, ibai, estuario eta hezeguneei dagozkien berezko espezie autoktonoekin egindako birpopulazioak abian jartzeko.</p> <p>Irizpide hori aplikatuko da lehentasunez KBEko herri titularitateko lursailetan, behin landaketa aloktonoek beren ekoizpen-zikloa amaitu eta ipurditik botatzen direnean. Birpopulatu berriek eskualde bakoitzean berezkoak diren komunitateetako landaretza sailetan oinarritutako landatze-modulu heterogeneoak erabiliko dituzte, 1.A.1en jaso den bezala.</p>
3.J.4	<p>Basoetako ustiapenetan, ibai-sistemaren luzetarako jarraitasuna eteten duten eta faunaren joan-etorriak oztopatzen dituzten azpiegiturak eraikitzea eragotziko da eta behar-beharrezkoa denean bakarrik erabiliko da makineria astuna eta ibilgailuen joan-etorria; baita ibilguarekiko gurutzatzeak eta drainatzeak ere, ibilguri, erriberei, ibaiertzei eta haiei loturiko ekosistemei eragitea minimizatzen. Basopistak eraikitzearen ordezko beste metodo batzuk sustatuko dira basoetako egurra ateratzeko.</p>
3.J.5	<p>Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko espezie mehatxatuetako populazioak dituzten gunetatik hurbil basogintzako lanak egin behar direnean, esandako espezieen babesa bermatzeko adinako azalera batean ezingo da esandako basogintzako lanik gauzatu.</p>

KODEA	BASOGINTZAKO ERABILERARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
3.J.6	Laguntza finantzarioak sustatuko dira aurrez adierazitako Jarraibideak betetzea errazteko eta bultzatzeko, bai Europar Batasuneko funtsen bitartez –hala nola Landa Garapen Iraunkorreko Programan jasotako laguntzak–, bai helburu horretarako ezar daitezkeen beste laguntza batzuen bitartez.
3.J.7	Ahalegin berezia egingo da basogintza-sektorea prestatu eta haiei informazioa emateko, Natura 2000 Sarearen helburuei, konpromisoari eta aukerei dagokienez.

Arauk:

KODEA	BASOGINTZAKO ERABILERARI BURUZKO ARAUAK
3.A.1	Debekatuta daude KBE/BBEen eremuan interes ekologikoa duten erriberako zuhaitzak edo landaretza-masak guztiz edo partzialki botatzea dakarten basojarduerak. Ingurune horretan gauzatzen diren baso-ustiapenek Batasunaren intereseko habitat eta espezie guztien iraunkortasuna eta kontserbazioa ziurtatu behar dute, eta ez dute kalterik eragin behar ibilguetan, erriberetan, ibaiertzetan, ez uraren kalitatean.
3.A.2	KBE/BBEen eremuan gauzatzen diren baso-ustiapenetan, ez da lanik egingo, gutxienez, herri-jabari hidraulikoari eta haren babeserako zortasun-eremuari dagokion lursail zerrendan. Eremu horretan, ez da bertakoa ez den zuhaitz-espezierik aldatuko ez landuko, eta landaretza formazio naturalak kontserbatzeko eta hobetzeko jarduerak sustatuko dira. Eremu horietan landatze lanak egitean, ez da zorua higitzea eragingo duen lanik egingo.
3.A.3	Debekatuta dago Batasunaren intereseko zuhaitz-habitatetan arraseko baso-soilketak egitea eta erabilera aldatzea, eta oro har, baita KBE/BBEetako baso autoktono guztietan ere.
3.A.4	Debekatuta dago KBE/BBE izendatzen den unean beste erabilera bat duten lurretan bertakoak ez diren baso-espezieen landaketa berriak egitea, bereziki, naturalizatze eta ugaltze ahalmena duten espezie inbaditzaileen kasuan. Hala, eremu horietako birpopulatze berriek bertako espezieak ez ezik, eskualde bakoitzean berezkoak diren komunitateetako landaretza sailetan oinarritutako landatze-moduluak erabiliko dituzte, 1.A.1 arauan jasotako irizpideari jarraiki.
3.A.5	Ibaitako KBE/BBEetako Naturagune Babestuen eremuetan, baso baliabideen antolamendu-planek eta mendien antolamendurako planek –edo plan dasokratiakoek–, betiere, irizpide gisa, erriberako landaretza eta baso autoktonoak errespetatu eta, kasua hala bada, berreskuratu beharko dituzte. Nolanahi ere, plan eta proiektu horiek baimendu ahal izateko lekuaren osotasunari ez diotela kalterik egingo egiaztatu beharko da, dagokien ingurumen ebaluazioko prozeduraren pean jarri ostean.

Ehiza eta arrantza

Jarraibideak

KODEA	EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
4.J.1	Ehizari eta arrantzari buruzko arautzea bateragarria izango da tokietan presentzia duten eta Batasunaren interesekoak diren fauna eta florako populazioen eta habitaten kontserbazio helburuekin. Horren haritik, ehizaren eta arrantzaren ustiapena urtero arautzen duten Dekretuek eta Foru-aginduek aipatutako kontserbazio helburura doitzeko beharrezkoak diren unean uneko aldaketak ezarriko dituzte.
4.J.2	Informazio- eta prestakuntza-kanpainak sustatuko dira ehiztarien eta arrantzaleen kolektiboentzat, KBE eta hegaztientzako BBEetan dauden eta Batasunaren interesekoak diren fauna-espezieak kontserbatzeko eta babesteko xedez.

Arauk

KODEA	EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO ARAUAK
4.A.1	Ehizarako edo arrantzarako espezieetako animalia basatien birpopulatzeek eta «Ehiza industrialeko eremu» edo Arrantza «intentsibo edo industrialeko» barrutietarako proiektuek KBE/BBEen organo kudeatzailearen baimena beharko dute. Jar-duera horiek eragin esanguratsua izan dezakete Natura 2000 Sareko lekuetan, haren eremutik kanpo egonik ere; hortaz, proiektu horiek baimendu ahal izateko lekuaren osotasunari ez diotela kalterik egingo egiaztatu beharko da, dagokien ingurumen ebaluazioko prozeduraren pean jarri ostean.
4.A.2	Debekatuta dago ehizarako edo arrantzarako faunako espezie eta/edo aldaeratako animaliak askatzea edo birpopulatzea, berdin ekimena pribatua edo publikoa denean, KBE/BBEetan presentzia duten Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko espezieentzat mehatxu-faktorea izan badaitezke.
4.A.3	KBE/BBEetan nahi gabe edo legez kanpo sartu baldin badira, ezin izango da inola ere fauna-espezie horiek ehizarako edo arrantzarako ustiatzea baimendu. Kasua hala baldin bada, kontrol neurriak sustatu beharko dira espezieak desagerrarazteko.
4.A.4	Indarrean dagoen araudiari jarraiki, espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako katalogoan jasota dauden espezieetako animaliak izaditik harrapatu, atxiki edo ateratzen badira, zeinahi prozeduraren bitartez, ezingo dira ingurune naturalera itzuli, ikerketa arrazoiengatik izan ezean. Partikular batek harrapatu edo atxiki dituen kasuan, eskumena duten agintariei entregatu beharko die animalia –edo animaliak– edota deuseztatu edo ingurune naturaletik kendu, indarrean dagoen araudiari jarraiki. Ur gezatako arrantza jardueretan, debekatuta dago beita gisa erabiltzea –bizirik edo hilda– esandako espezieetako zeinahi animalia edo haren edozein zati edo deribatu.

KODEA	EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO ARAUAK
4.A.5	Ehizaren alorrean indarrean dagoen araudiari jarraiki, eta horrek eragiten dituen mugak aintzat hartuta, ur publikoak (ibilguak eta ertzak barne) segurtasun-eremutzat hartzen dira; eta lurrazaleko ur-masak (inguruko eremuak barne) fauna-babeslekutzat hartzen dira, inolako izendapen-beharrik gabe. Inguruko eremuaren azalera zenbatekoa den zehazteko, KBE eta/edo hegaztientzako BBEtan dauden eta Batasunaren interesekoak diren espezieak hartuko dira kontuan.
4.A.6	Estuarioen eremuetan, eta kontserbatu beharreko hegazti-faunako espezieek atsedean hartzeko eta elikatzeko toki oso garrantzitsuak diren aldetik, alor horretan eskumena duen erakundeak faunaren babesguneak sortzea sustatuko du, edo antzeko beste figuraren bat, esandako horien kontserbazioa bermatzea helburu dela.
4.A.7	Areagotu egingo dira zainketa- eta kontrol-lanak estuarioetan arautu gabeko itsaski-bilketa jarduerak eragozteko, bereziki, Txingudiko KBE/BBEan. Estuarioko uren kalitatea bateragarria balitz itsas bilketarekin, beharrezkoa izango da, alde aurretik, jarduera horrek tokiko kontserbazio helburuetan izan ditzakeen ondorioen ebaluazioa egitea. Edonola ere, Plaiaundiko parke ekologikoaren erabilera publikoko araudiak ezarritakoari jarraiki, debekatuta dago itsaski-bilketa parkearen eremu osoan, barneko aintzirak eta Itzaberriko marearteko hondartza barne (inguru horretan Zostera noltii aurki daiteke).

Uraren erabilera

Jarraibideak

KODEA	URAREN ERABILERARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
5.J.1	Uraren erabileraren kudeaketak baliabide horren optimizazioa izan behar du xede, funtsezkoa baita ingurune hidrikoari loturiko KBE/BBEen kontserbazio helburuak lortzeko.
5.J.2	Erabiltzen ez diren ustiapen-emakida guztiak iraungitzea sustatuko da horretarako eskumena duen arroko erakundearen aurrean, eremu barruan daudenak zein, mugetatik kanpo egon arren, kontserbazio helburuak arriskuan jar ditzaketanak.
5.J.2	Emakidarekin zerikusia duen oztopoa eraisteko edota iragazkor izateko aukera guztiak aztertuko dira. Bideragarria baldin bada, oztopoa eraitsi egingo da, eta ezin bada, iragazteko modurik eraginkorrena hautatuko da, eta ahal dela, alboetan ubideak eraikiko dira edo arrapalak, segidako aska-eskalak eraiki ordez.

KODEA	URAREN ERABILERARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
5.J.3	Erakunde kudeatzaileak eskumena duen arroko erakundearen aurrean sustatuko du emari ekologikoen erregimena aplika dadin ur-ustiapenerako emakida berrietan zein zaharretan. Eta bereziki erreparatuko die eskuartean den KBE edo hegaztientzako BBEaren kontserbazio helburuak lortzea gehien mehatxa dezaketen emari kenketei.
5.J.4	Irizpide orokor gisa, ahalik eta gehien murriztu behar dira ibaietako KBE/BBEetan eragina izan dezaketen uren ustiapenerako emakida berrien baimenak. Aldez aurretik aztertuko dira emakidaren beharra, teknikoki bideragarriak diren aukerak eta proposatutako irtenbidearen ingurumen-egokitasuna, eta bermatu beharko da ez duela ondorio aipagarriak izango KBE/BBEaren kontserbazio-helburuetan. Nolanahi ere, aztergai den KBE/BBEaren barruan kontserbatu beharreko habitaten edo espezieen kontserbazio-egoera onari eustearekin edo lehenera ekartzearekin bateragarri izango den emari-erregimena ziurtatuko da.
5.J.5	Arreta bereziz zainduko da KBE/BBEen eremuan ura ustiatzeko emakidaskubideak dituzten instalazioek beti abian izan ditzaten hainbat kontrol-sistema; hain zuzen ere, erabilitako ur-bolumena, aipatutako herri-jabari hidraulikora itzultitako ura eta egindako isurketak kontrolatzeko. Horrez gainera, emakidarekin zerikusia duten instalazio guztiak garbi eta baldintza egokietan eduki behar dira, bereziki, arrainak igarotzeko gailuak (arrapalak, eskalak...), saretak, etab.; hortaz, ziurtatu egin behar da instalazioek behar bezala funtzionatzen dutela une oro, eta KBE/BBEan existitzen diren basa faunako espezieen joan-etorriak ahalbidetzen direla, hala ibaian gora zein behera. Baldin organo kudeatzaileak gorabeherak edo akatsak hautemango balitu gailu horiei dagokienez, eskumena duen administrazio hidraulikoari jakinaraziko dio.
5.J.6	Lehentasuna emango zaie KBE/BBEan hondakin-urak isurtzen dituzten araztegi nagusietan beharrezkoak diren hobekuntza-, egokitzapen- eta/edo dimentsionatze-lanei; bai-eta lehen mailako saneamendu-sistema autonomoak (putzu septikoak) ordeztuari eta/edo hobetzeari ere, berorien kokapenak eta/edo funtzionamenduak KBE/BBEan kontserbatu nahi diren habitat eta espezieen kontserbazio-egoera ona lortzea edo mantentzea eragozten badute.

Arauk

KODEA	URAREN ERABILERARI BURUZKO ARAUAK
5.A.1	<p>Plangintza Hidrologikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen 907/2007 Errege Dekretuaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, esandako plangintzan lehentasuna emango zaio Natura 2000 lekuetan emari ekologikoak mantentzeari.</p> <p>Bestalde, plangintza hidrologikoaren instrukzioa onartzen duen irailaren 10eko ARM/2656/2008 Aginduaren arabera, eremu babestuetako emari-erregimena erabakitzea eta ezartzea ez da eremu babestuaren luze-zabalera soilik mugatuko; aldiz, babestutako eremutik kanpora egon arren, esandako eremu horretan inpaktu adierazgarria izan dezaketen sistema hidrografikoko beste elementu batzuei ere eragingo die.</p>
5.A.2	<p>KBE/BBEetan proposatutako jarduera-ildoan artean, tokian tokiko elementu giltzarrak diren habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera ona babesteko edo lortzeko egokiak diren ingurumen-emarien erregimena definitzeko erabiliko diren berariazko azterlanak egitea aurreikusten da.</p> <p>Azterlan horiek egiten diren bitartean, ibaiaren hidrograma naturalarekin bat datorren emari-erregimen bat aplikatuko da KBE/BBEetan. Emari-erregimen hori zehazteko, emari ekologiko modularraren metodologia aplikatuko da. Hori guztia, arroaren arabera dagokion plan hidrologikoan ezarritakoaren kaltetan izan gabe, eta betiere, dauden aukera desberdinetatik, habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera ona mantentzeko edo berrezartzeko mesedegarriena den emari-erregimena aplikatuz, haien eskakizun ekologikoei erantzuteko (ugalketa, kumeen hazkuntza, elikadura eta atsedena) eta epe luzera mantentzeko ezinbestekoak dituzten ur-masen funtzionalitate ekologikoa, aipatutako ARM/2656/2008 Aginduko 3.4.1.1 paragrafoan ezarritakoari jarraiki.</p>
5.A.3	<p>Ibaitako KBE/BBEek lehentasuna izango dute ibaiaren hidrograma naturalera egokitutako emari ekologikoen erregimena ezartzeari dagokionez -5.A.2 arauan horiei buruzko aipamena-; hortaz, 2018. urtea baino lehen, emari horiek aplikatzen direla bermatu behar da, orduan amaitzen baita Habitategi buruzko Zuzentarauaren 17. artikuluan xedatutako ebaluazio-aldia.</p>
5.A.4	<p>KBE/BBEaren organo kudeatzaileak arroko erakunde eskudunari eskatuko dio ofizioz abiaraz dezala emakidak aldatzeko espediente bat, baldin eta emakida horiek kontserbatu beharreko habitatetan eta espezieetan aldaketa nabarmenak eragiten badituzte edo haien kontserbazio-egoera ona lehenera ekartzea eragozten badute.</p>
5.A.5	<p>Ez da baimenduko KBE/BBEetan emaria desbideratzea ura biltzeko, baldin eta horrek eragiten badu ibaiaren gutxieneko emaria zehaztutako emari ekologikoa baino txikiagoa izatea.</p>
5.A.6	<p>Ur-ingurumenarekin zerikusia duten espezieen mugikortasuna oztopatzen duten eta ziklo biologikoa betetzea galarazten duten azpiegiturak dituzten emakiden titularrek behar beste jarduera gauzatu beharko dituzte, faunak gora zein behera mugitzeko aukera izan dezan, ibai-lotura hobea izan dadin eta ezarritako emari ekologikoaren erregimena kontrolatzeko modua egon dadin.</p>

KODEA	URAREN ERABILERARI BURUZKO ARAUAK
5.A.7	<p>Ibaien loturarako gailuak gauzatzeko proiektuek dokumentu honen gehigarrian adierazitako gutxieneko edukia bete behar dute. Gehigarri horretako a) letran adierazitako helburu-espezieak zehazteko, bereziki hartu beharko dira kontuan KBE/BBEetako elementu giltzarritzat jotzen diren espezieak. Gainera, igarobide multiespezifikoak ez eraikitzea hautatzen bada –esaterako, alboetan ubideak eraikitzea edo eraiste partzialak egitea–, aingirentzako igarobide espezifikoak gehitu beharko dira. Presa txikiak eta oztopoak erabat edo partzialki botatzeko proiektuetan, ur geldi edo urmaeletako erriberen morfologia hobetzeko jarduerak aurreikusi behar dira.</p>
5.A.8	<p>Izaera orokorrez, ES2110011 Zadorraren sistemako urtegiak KBE salbuetsita, Ibaietako KBEen esparruan zentral hidroelektriko berriak eraikitzea zein daudenak handitzea ez dira bateragarriak joko gune horietako kontserbazio helburuekin.</p> <p>Ondorengo arrazoi hauek funtsatzen dute bateraezintasun hori:</p> <ul style="list-style-type: none"> • KBE hauetan elementu giltzarritzat hartzen diren espezieen sentikortasun berezia erabilera hidroelektrikotik eratortzen diren ondorioekiko. • Batasunaren intereseko elementu horien gehiengoaren kontserbazio-egoera desegokia edo kaskarra. • Giro horiei lotutako habitat mota eta espezie gehienek hauskortasun eta/edo urrakortasun maila handia eta elkarrekiko duten mendekotasun funtzionala. • ibai-korridoreak eta uretako ekosistemak lehen mailako elementuak dira lotura ekologikoari eutsi ahal izateko; horregatik, elementu horien funtzionalitatea bermatzea lehentasunezko kontserbazio helburua da.
5.A.9	<p>Izaera orokorrez, hidropunta deituriko ustiapen-praktika ez da bateragarria jotzen KBEen kontserbazio helburuekin, ES2110011 Zadorraren sistemako urtegiak KBE salbuetsita. Baldin organo kudeatzaileak hautemango balu praktika horri loturiko gorabeherak edo eraginak daudela, eskumena duen administrazio hidraulikoari emango dio haien berri, hark egoki ikusten dituen neurriak har ditzan kontserbazioaren xede diren habitaten edo espezieen kontserbazio-egoera ona mantentzeko edo lehenera ekartzeko.</p>

Hirigintza, urbanizazio eta etxegintza erregimena

Jarraibideak

KODEA	HIRIGINTZA, URBANIZAZIO ETA ETXEGINTZA ERREGIMENARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
6.J.1	<p>Natura 2000ko espazioen Naturagune Babestu izaera kontuan hartuta, lurralde antolamenduko tresnek eta hirigintzarako planeamenduak haiek artifizialtzea eta birsailkatzea –lurzoru urbanizaezin izatetik lurzoru urbanizagarri edo hiri-lurzoru izatera pasatzea– ekidingo dute, eremu horietan presentzia duten habitat natural moten eta espezieen kontserbazioa bermatzeko xedez.</p>

KODEA	HIRIGINTZA, URBANIZAZIO ETA ETXEGINTZA ERREGIMENARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
6.J.2	Jada urbanizatuta dauden eremuetan, ibilguaren eta urbanizazioaren arteko lursailen erabilerak eta aktibitateak toki horretako kontserbazio helburuetara bideratzea sustatuko da, eta helburu horiek betetzen laguntzen duten jarduerak bultzatuko dira. Lur-zerrenda horiek, gehienetan txikiak izaten diren arren, berebiziko garrantzia izan dezakete lotura ekologikoa hobetzeko eta babestu beharreko habitatak eta espezieak babesteko.
6.J.3	Hiriguneetako garapen berriko eremuetan, nahitaez eta doan laga beharreko lurzorua ibilguen babes-eremutarako erabiltzea sustatuko dute Udalek, eta urbanizazio-karga gisa aurreikusi ahal izango da ibaiertzak berriro landarez jantzi behar izatea. Halakoetan, babes-eremuak espazio libreen sistema orokortzat edo tokikotzat hartu ahal izango dira, baldin eta ibai-ekosistema kontserbatzeko eta/edo lehenera ekartzeko erabiltzen badira, ingurumena kontserbatzeko eta hobetzeko erabilerari buruz dokumentu honetan ezarritako jarraibideei jarraiki.
6.J.4	Halaber, hiriguneetatik barrena igarotzen diren ibai- eta estuario-tarteei eta erriberak okupatuta dituzten guneei dagokienez, hirigunea eta industria-lurzorua eraberritzea eta birgaitzea xede duten planetan ibaiertzetan espazio libreak uzteko xedapenak jasota izatea sustatuko dute udalek; izan ere, horrela, erriberetako landaredia hobetzea eta ibaiertzak berriro landarez jantzea bultzatuko da, ahal den tarte gehienetan.

Arauk

KODEA	HIRIGINTZA, URBANIZAZIO ETA ETXEGINTZA ERREGIMENARI BURUZKO ARAUAK
6.A.1	Garapen urbanistiko berriak ahalbidetzeko KBE/BBEen eremuko lursailen eraldaketa urbanistikoa inplikatzeko plan, programa eta proiektuak baimendu ahal izateko lekuaren osotasunari ez diotela kalterik egingo egiaztatu beharko da aldez aurretik, delako egitasmoak dagokien ingurumen ebaluazioko prozeduraren pean jarri ostean. Ebaluazio horretan, teknikoki bideragarriak diren beste aukera batzuk aztertuko dira, eta behar bezala arrazoituko da jarduera ezinbestekoa izateaz gainera, hautatutako konponbidea ingurumenerako egokia dela, hots, ziurtatu egin behar da ez dela kalte garrantzitsurik eragingo kontserbatu beharreko elementuetan.
6.A.2	6.A.1 paragrafoan ezarritakoa betetik, KBE/BBEen barruan onartzen edo baimentzen diren garapen urbanistiko berriek, izaera orokorrean, EAeko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialak F1 epigrafean ezartzen dituen gutxienezko atzerapenak errespetatu beharko dituzte. Atzerapen horiek urbanizaziorik eta etxegintzarik aplikatuko zaizkio eta herri-jabari hidraulikoaren muga-lerrotik edo administrazio hidraulikoak zehaztutako ur-goraldi handieneko murrizketak neur-

KODEA	HIRIGINTZA, URBANIZAZIO ETA ETXEGINTZA ERREGIMENARI BURUZKO ARAUAK
	<p>tuko dira, eta halakorik ez badago, ibilguaren ezpondaren gailurretik edo kanpoko lerrotik. Hona gutxienerako atzerapenak²:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 50 metrokoa urtegiatarako eta $A > 100 \text{ Km}^2$-ko adar-arroa duten ibai-tarteetarako (III, IV, V eta VI mailatako ibai-tarteak). ▪ 30 metrokoa $10 < A \leq 100 \text{ Km}^2$-ko adar-arroa duten ibai-tarteetarako (I eta II mailatako ibai-tarteak). ▪ 15 metrokoa $1 < A \leq 10 \text{ Km}^2$-ko adar-arroa duten erreketarako (0 mailako ibai-tarteak). ▪ Km^2 bat baino gutxiagoko adar-arroa duten jariatze edo errekestoei (00 mailako ibai-tarteak) dagokienez, Uren Legeak ezarritakoa izango da aplikagarri. <p>ES2110008 EBRO IBAIA KBEaren kasu partikularrari dagokionez, industrialde berriak baimenduko balira, EAeko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialak F4 epigrafean ezartzen dituen gutxienerako atzerapenak errespetatu behar dira. Gutxienerako atzerapen horiek 100 metrokoak dira eraikinen kasuan, eta 70 metrokoak urbanizazioetarako.</p> <p>Kasua hala denean, ingurumen ebaluazioa egiteko eskumena duen erakundeak ezar ditzake beste atzerapen-neurri batzuk, zergatiak azaldurik eta aipatutako ebaluazioaren emaitzaren arabera.</p>
6.A.3	<p>Aurreko arauan xedatutakoa hirigintza-espeditate hauei aplikatuko zaie: KBE/BBE izendapena egiten den egunean hasierako onespina emanda ez duten plangintza orokorreari edo garapen plangintzei (plan partzialak, plan bereziak).</p>
6.A.4	<p>6.A.2 paragrafoan urbanizazioentzat adierazitako atzerapenak aplikatu gabe utzi ahalko dira lehendik zeuden gunetan egiten diren etxebizitza-garapen berrien kasuan, baldin eta behar bezalako ebaluazioa egin ondoren, tokiaren osotasunari kalterik ez zaiola eragingo ziurtatzen bada.</p> <p>Ibai-tartearen ezaugarrien arabera, ingurumen ebaluazioa egiteko eskumena duen organoak erabakiko ditu erriberako ekosistemaren funtzionalitatea mantentzeko edo, kasua hala bada, haiek lehenera ekartzeko beharrezkoak diren atzerapenak, Administrazio Hidrauliko eskudunak dagokion baimenean ezartzen duenaren eta Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean xedatuta dagoenaren kaltetan izan gabe. Azken kasu horretan atzerapen zorrotzena aplikatu beharko da.</p>

² EAeko ur-ibilguen tarteak edo zatiak –puntu bakoitzekoa, dagokion adar-arroaren arabera– EAeko ibai eta erreken Lurralde Plan Sektorialaren osagai hidraulikoaren mapan kontsulta daiteke: http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/es?conf=BOPV/capas/D_449_2013/conf_PTSRA_Mapa_2.xml

KODEA	HIRIGINTZA, URBANIZAZIO ETA ETXEGINTZA ERREGIMENARI BURUZKO ARAUAK
6.A.5	<p>Urpean geratzeko arriskuei buruz kontuan hartu beharreko erabakiez gain, uraren alorrean dauden arau sektorialak bete behar dira, eta herri-jabari hidraulikoaren babeserako zortasun-eremuak libre eta oztoporik gabe geratu behar du, bertatik igaro ahal izateko, eta ahal izanez gero, ez da lurzoru naturala aldatzea eragingo duen jarduerarik gauzatuko (eraikuntzak, instalazioak edo zeinahi motatako eraikinak, finko nahiz desmuntagarriak, lur-berdinketak edo -mugimenduak, eta abar), ur-ingurumenarekin zerikusia duten erabileretatik eratorriak izan ezik.</p> <p>Herri-jabari hidraulikoaren babeserako zortasun-eremuan, urbanizazio-elementuak eraikitzea ekidingo da; adibidez, espaloiak, herri barruko bideak eta bidegorriak, lurrazpiko garajeak, sotoak eta, oro har, ibilguaren egoera ekologikoak okerrera egitea eragin dezaketen beste hirigintza-elementu oro. Halaber, eremu horren barruan, ibilguaren ondoan doazen lurpeko edo aireko azpiegitura linealak eraikitzea eragotzi behar da; esate baterako, kolektoreak, ur-hoditeriak, gas-bideak, komunikazio-sareak, etab.</p>

Azpiegiturak

Jarraibideak

KODEA	AZPIEGITUREI BURUZKO JARRAIBIDEAK
7.J.1	<p>Eragotzi egingo da KBE eta hegaztientzako BBEen baitan azpiegitura berriak eraikitzea; eta, horretarako, gune horien mugetatik kanpo dauden beste toki batzuk edo beste trazatu aukera batzuk aztertuko dira. Nolanahi ere, ez dira arriskuan jarriko eremuko kontserbazio helburuak.</p> <p>Era berean, KBE eta hegaztientzako BBEetan dauden zerbitzu-instalazioak kentzea sustatuko da, oro har, lurpekoak zein airekoak, eta, bereziki, linea elektrikoak, saneamendukoak, hornidurakoak eta horien antzekoak. Horrela, bada, ahal izanez gero, gune horietatik kanpo birkokatuko dira halakoak, instalazio horiek kentzeak dauden lekuan uzteak baino kalte handiagoa eragiten duen kasuan salbu.</p>
7.J.2	<p>Azpiegitura eta hoditeria linealak diseinatzerakoan, irizpide hau aplikatuko da: trazatua lehendik dauden azpiegituretara egokitzea.</p>
7.J.3	<p>Ibilguak ezingo dira azpiegitura kanalizatuen luzetarako trazatuaren zerbitzu-galeriatzat hartu. Horrelako eremuetan, ibilgua eta beronen ingurua errespetatu beharreko espaziotzat hartu behar dira, ezinbestekotzat, alegia, ibaiertzeko korridorea garatzeko eta ibai-ekosistemaren kutsadura eta egoera ekologikoaren degradazioa kontrolatzeko.</p>

Arauk:

KODEA	AZPIEGITUREI BURUZKO ARAUAK
7.A.1	<p>Beste kokapen edo trazatu aukerarik ez dagoelako, KBE eta hegaztientzako BBEetan garatu beharreko azpiegituren plan, programa eta proiektuak (saneamendu, hornidura, energia-garraio eta -hornidura, errepide eta bide, etab.) baimendu ahal izateko lekuaren osotasunari ez diotela kalterik egingo egiaztatu beharko da alde zurratik, delako egitasmoak dagokien ingurumen ebaluazioko prozeduraren pean jarri ostean.</p> <p>Ibaiertzak babesteko eta ezpondak egonkortzeko egiturak beharrezkoak baldin badira, ahalik eta teknika onena erabiliko da, eta ahal dela eragotzi egingo dira konponbide «gogorak», hormigoizko harresien edo harri-lubeten modukoak, teknikoki egokienak beroriek direnean salbu. Egitura horiek ingurunean integratuko dira, eta horretarako, lehentasuna izango duite bioingeniaritza edo ingeniaritza naturalistikoko teknikak. Harri-lubetaren tarteko hutsuneak landare-lurrarekin betetzea aurreikusiko da, eta zuhaitz-, zuhaixka- eta belar-landare autoktonoak edo basati bihurtuak aldatzea, landaketan edo aldaxken bidez.</p>
7.A.2	<p>7.A.1 paragrafoan ezarritakoa betetik, KBE/BBEen eremuan baimentzen diren lurpeko instalazio eta azpiegiturak (hondakin-urak tratatzeko instalazioak, kolektoreak, ur-hoditeriak, gasbideak, telekomunikazio sareak, linea elektrikoak, etab.) EAeko Ibaiak eta Errekak Antolatzen Lurralde Plan Sektorialean ezarritako ondorengo atzerapenak errespetatu beharko dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Landa-esparruan: 15 metro, baldin eta ez badira errepide edo bide azpitik igarotzen. ▪ Hiri-eremuak: Ahal dela, hodiak tokiko bideen edo espaloien azpian edo kanalizazioen barnealdean instalatuko dira. ▪ Hirigintza-garapen berrientzat ahalmena duten esparruak: Azpiegitura horiek urbanizazio berriko bideen edo espaloien azpian instalatuko dira ahal izatera. <p>Ez da baimenduko, behar bezala justifikatutako eta ebaluatutako kasu berezietan izan ezik, landa-eremuan kanalizazioak egitea azpiegitura linealak jartzeko. Azpiegiturak ezartzean, berriazko azterketa batean ebaluatutako ezintasunik ezean, interes naturaleko elementuak eta erriberako landaredia kontserbatu behar dira, eta haien diseinuaren bidez, jada desagertu den lekuetan landaredia lehenera ekartzea bultzatuko da.</p> <p>Kasua hala denean, ibai-tartearen ezaugarrien arabera, ingurumen ebaluazioa egiteko eskumena duen erakundeak ezar ditzake beste atzerapen-neurri batzuk, zergatiak azalduz eta aipatutako ebaluazioaren emaitzaren arabera. Nolanahi ere, talken eta elektrokuzioen aurkako gailuak jarriko dira instalazio horietan, hegaztiak hil ez daitezzen.</p>
7.A.3	<p>Teknikoki bideragarria den guztian, KBE/BBEetan, zutoin eta dorre elektrikoak ibilgutik, gutxienez, 15 metro atzerago jarriko dira. Kasua hala denean, ingurumen ebaluazioa egiteko eskumena duen erakundeak ezar ditzake beste atzerapen-neurri batzuk, zergatiak azalduz eta aipatutako ebaluazioaren emaitzaren arabera.</p> <p>Nolanahi ere, talken eta elektrokuzioen aurkako gailuak jarriko dira instalazio horietan, hegaztiak hil ez daitezzen.</p>

KODEA	AZPIEGITUREI BURUZKO ARAUAK
7.A.4	<p>Ibilguak edo hezeguneak gurutzatzea eskatzen duten azpiegituren proiektuetan, gurutzatze horiek gauzatzean, ez da aldaketarik eragingo ibilguan eta erriberetan, eta lehendik dauden igarobideen azpiegiturak erabiltzea lehenetsiko da (zubiak, bideak...); horretarako aukerarik ez badago, eskuragarri dagoen teknikarik onena erabiliko da, hau da, toki horretan kontserbatu beharreko elementuetan eragina minimizatze aldera teknikarik eraginkorrena eta aurreratuena dena, bideragarriak diren ekonomia- eta teknika-baldintzak errespetatuta, kostuak eta onurak kontuan hartuta eta zer egoera dagoen aintzat hartuta.</p> <p>Nolanahi ere, proiektu horiek baimendu ahal izateko lekuaren osotasunari ez diotela kalterik egingo egiaztatu beharko da, dagokien ingurumen ebaluazioko prozeduraren pean jarri ostean.</p>
7.A.5	<p>Zubiak, zubibideak eta, oro har, bideetako azpiegituren gurutzatzeak eraiki behar direnean, ibai-ibilguetan eraginik izango ez duten moduan diseinatuko dira, eta ibaiertzetan azpiegitura gabeko eremu libre bat utzi beharko da, ibaiertzetako landaredia lehenera ekarri ahal izateko eta erriberetako ekosistemekin zerikusia duten fauna-espezieen joan-etorriak errazteko. Izaera orokorrez, ointokiek eta zutabeek 15 metroko atzerapena errespetatuko dute, gutxienez, ibilguaren ezpondaren gailurretik neurtuta.</p> <p>Kasua hala denean, ingurumen ebaluazioa egiteko eskumena duen erakundeak ezar ditzake beste atzerapen-neurri batzuk, zergatiak azaldurik eta aipatutako ebaluazioaren emaitzaren arabera.</p>
7.A.6	<p>Ibai-ingurunearekin zerikusia duten kultura-ondareko elementuetatik (zubiak, errota, burdinolak) edo ibilguetatik hurbil obra berriak edota azpiegiturak edo eraikuntzak berritzeko lanak egin behar badira, kontuan hartu beharko dira kontserbazioaren xede diren espezieen eskakizun ekologikoak.</p> <p>Ibai, estuario eta hezeguneen inguruetan azpiegitura berriak eraikitze, edo lehendik dauden azpiegiturak edo eraikuntzak, edota urarekin zerikusia duten kultura-ondareko elementuak (zubiak, errota, burdinolak) berritzatzeko lanak egin behar direnean, proiektuaren eraginpeko eremuan egon daitezkeen eta kontserbazioaren xede diren fauna-espezieen eta, oro har, tokian presentzia duten eta mehatxatu gisa katalogatuta daudenen kume-hazkuntzarako aldi kritikoak errespetatu beharko dira.</p>

Erabilera publikoa eta ibilgailuen zirkulazioa

Jarraibideak

KODEA	ERABILERA PUBLIKOARI BURUZKO JARRAIBIDEAK
8.J.1	Udalekin batera koordinatuko da publikoaren etorrera eta jolas-aktibitateetarako azpiegiturak (kanpatzeko lekuak, aparkalekuak, jolaslekuak, paseatzeko bideak, bidegorriak...) espazioaren mugetatik kanpo kokatutako eremuetara bideratzeko modua.
8.J.2	Oro har, ibaietako eta itsasadarretako erriberen paraleloan eta hurbil igarotzen diren oinezkoentzako eta/edo bizikletaz ibiltzeko bideak egitea eragotziko da.
8.J.3	Ingurune horietan, erabilera didaktikoa eta ingurumen-heziketa sustatuko da, baldin eta bateragarria bada eremuan dauden eta Batasunaren eta/edo eskualdearen interesekoak diren habitatak eta espezieak behar bezala kontserbatzen jarraitzearekin.
8.J.4	<p>Estuarioetan eta hezeguneetan, oro har, publikoaren sarrera mugatu egingo da eta bidexka eta ibilbide sarea diseinatzeko orduan gune sentikorrenetara ez hurbiltzen ahaleginduko da: hegaztien ugaltokiak, interes bereziko eremuak edo fauna arriskuan dagoen lekuak, hauskortasun handiko habitatak (1210- itsasoko hondakinetan hazten den urteko landaredia; 1310- paduretako eta lur gazietako halofiloen urteko landaredia; 1420- paduretako eta lur gazietako sasitza halofiloak; 2110- enbrioi faseko dunak; 2120- <i>Ammophila arenaria</i> duten duna mugikorak; 2130- duna gris finkoak), etab.</p> <p>Jarraibide hori bera aplikatuko zaio 4040* habitatari: «<i>Erica vagans</i>-ez eraturako kostatxilaridun txilardi lehorrak».</p>

Arauk:

KODEA	ERABILERA PUBLIKOARI BURUZKO ARAUAK
8.A.1	<p>Beste trazaturik posible ez delako, KBE/BBEen eremu barrutik igaro behar duten oinezko eta txirrindularientzako bideak lehendik existitzen diren azpiegituretan oinarrituko dira. Halaber, ahal izatera, Jabari Publiko Hidraulikoaren zortasun-eremutik kanpo kokatuko dira, hiri-lurzoru kontsolidatuak direnean izan ezik; kasu horretan, esandako pasealekuak, ahal denean, ibilguaren ezpondaren gailurretik aldentuta egongo dira.</p> <p>Nolanahi ere, mota horretako azpiegiturak baimendu ahal izateko lekuaren osotasunari ez diotela kalterik egingo egiaztatu beharko da, dagokien ingurumen ebaluazioko prozeduraren pean jarri ostean.</p>

KODEA	ERABILERA PUBLIKOARI BURUZKO ARAUAK
8.A.2	Debekatuta dago ibilgailu motordunen zirkulazioa, asfaltozko edo hormigoizko oinarritzko bide-saretik kanpo, bai eta KBE/BBEan ibilgailu motordunen kirol-probak eta -lehiaketak egitea ere, erakunde kudeatzailearen berariazko baimena izan ezean. Esandako bide-saretik kanpo, erabilera justifikatuen kasuan soilik baimenduko da ibilgailuen zirkulazioa: baso lanetan, azpiegiturak instalatu eta mantentzeko, kudeaketa- eta/edo ikerketa-lanetarako edo larrialdietan.
8.A.3	KBE edo hegaztientzako BBEen barruko ibai-ibilguetan kirol eta/edo aisialdiko talde-aktibitateak antolatzeko, erakunde kudeatzaileari jakinarazi beharko zaio alde aurretik, antolatu nahi den aktibitatearen arabera, beharrezkoak izan litezkeen beste baimen batzuk ere behar izatea alde batera utzi gabe.

Beste erabilera eta jarduera batzuk

Jarraibideak

KODEA	BESTE ERABILERA ETA JARDUERA BATZUEI BURUZKO JARRAIBIDEAK
9.J.1	Ingurune horretan erabilerak eta jarduerak garatzeko aplikatuko den irizpide orokorrak bateragarria izan behar du eremuan dauden eta Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko habitatak eta espezieak behar bezala kontserbatzen jarraitzearekin.
9.J.2	Ekidin egingo dira halako jarduerak ibilguan, ibaiertzeko zerrendan, estuarioetan eta hezeguneetan, bai-eta KBE eta hegaztientzako BBEetako ekosistemak artifizialtzea dakarten zortasun-eremuetan ere.

Arauak

KODEA	BESTE ERABILERA ETA JARDUERA BATZUEI BURUZKO ARAUAK
9.A.1	<p>Euskadiko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 19.4 artikuluan xedatua aplikatzeko, KBE eta hegaztientzako BBE izendatu ziren unean baimenduak ez zeuden erauzte-jarduera berriak ez dira bateragarri jotzen ibai, estuario eta hezeguneetako Natura 2000 lekuen kontserbazio helburuekin. Ildo beretik, debekatuta dago ibilgutik legarra eta/edo hondarra ateratzea, Meatzeei buruzko uztailaren 21eko 22/1973 Legean eta araudi osagarrian xedatuari jarraiki.</p> <p>Ondorengo arrazoi hauek funtsatzen dute bateraezintasun hori:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Giro horiei lotutako habitat mota eta espezie gehienen hauskortasun eta/edo urrakortasun maila handia eta elkarrekiko duten mendekotasun funtzionala. • Batasunaren intereseko elementu horien gehiengoaren kontserbazio-egoera desegokia edo kaskarra. • ibai-korridoreak eta uretako ekosistemak lehen mailako elementuak dira lotura ekologikoari eutsi ahal izateko; horregatik, elementu horien funtzionalitatea bermatzea lehentasunezko kontserbazio helburua da.

KODEA	BESTE ERABILERA ETA JARDUERA BATZUEI BURUZKO ARAUAK
9.A.2	<p>Ez da onartuko ibilguaren, estuarioaren edo hezegunearen aldaketa morfologikoa dakarren jarduerarik, interes publikoko arrazoiengatik salbuespenez baimenduko direnak izan ezik. Kanalizazioak, defentsak, eraikuntzako dragatzeak eta mantentzeak, jalkinak birkokatzea, eta zeinahi motatako betelanak aurreikusten dituzten plan, programa eta proiektuak baimendu ahal izateko, lekuaren osotasunari ez diotela kalterik egingo egiaztatu beharko da aldez aurretik, delako egitasmoak dagokien ingurumen ebaluazioko prozeduraren pean jarri ostean.</p>
9.A.3	<p>Ibaietako ertzak edo hezeguneak garbitzeko lanei dagokienez, belar-sastrakak garbitzeko eta/edo landare-hondakinak eta eroritako zuhaitzak kentzeko eta antzeko lanetarako, alor horretan eskumena duen administrazioak berariazko baimena eman behar du. Administrazio horrek, lan horiek kontserbatu beharreko elementuetan zer ondorio eragingo duten baloratzeko, irizpide hauek erabiliko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erriberako basoen ekologia-egoeran eragiten dituzten ondorioak • Ibilguaren ahalmen hidraulikoa oztopatzeko arriskua, zubiak daudelako edo, hondakinak pilatuta dauden lekutik behera, traba egin dezaketen beste elementu batzuk daudelako. • Uholdeen edo ezponda-zulatzeen ondorioz kaltetu daitezkeen jabetzak (eraikuntzak, etxebizitzak) edo azpiegiturak (errepideak) dauden ala ez. • Mehatxupean dauden espezieetan izan ditzaketen ondorioak; jarduerak gauzatzeko garaiak.
9.A.4	<p>KBE/BBEetako baso autoktonoetako masak ipurditik botatzea inplikatzan duen jarduera orok, Batasunaren intereseko habitata ez den kasuan ere, eragin adierazgarria izan dezake kontserbazioaren xede diren habitat eta espezieetan, beraz, baimendu ahal izateko, lekuaren osotasunari ez diola kalterik egingo egiaztatu beharko da, dagokion ingurumen ebaluazioko prozeduraren pean jarri ostean.</p>
9.A.5	<p>Helburu zientifikoetarako edo apaingarritzat erabiltzeko material biologikoak eta geologikoak bildu ahal izateko, KBE/BBEaren erakunde kudeatzailearen baimena beharko da.</p>

GEHIGARRIA**Ibaien arteko loturak hobetzea xede duten gailuetarako proiektuen gutxieneko edukia**

Ibaien arteko lotura egiteko gailuak jartzea xede duten proiektuek alderdi hauek hartu behar dituzte kontuan:

- a) Helburutzat hartutako espezieak, eta espezie horien desplazamendu- edo migrazio-garaiak zehaztea dagokion ibai-tartean, bai-eta migrazio edo desplazamendu premia handienak zer arotan dituzten ere.
 - Ibai-tarte horretan dauden eta egon litezkeen espezieei buruzko laginketak eta datu fidagarriak kontsultatzea.
 - Espezie bakoitzak igeriketarako, jauzirako eta desplazamendurako duen gaitasuna definitzea, bai-eta zer joera duen ere; horretarako, baldintza mugatzaileenak hartuko dira kontuan.
 - Migrazio- edo desplazamendu-garaiak zein diren zehaztea dagokion ibai-tartean.
- b) Igarobiderako gailua kokatzerakoan aintzat hartzea ibaiaren ezaugarriak, helburutzat hartutako espezieak eta ibai-tartearen morfologia (deiak egiteko eremua, irteteko eremua, ibai-ertzetatik gailua dagoen tokira heltzeko baldintzak).
- c) Ur-emarien analisiak.
 - Ur-emarien serieak biltzea egunero.
 - Dagokion ibai-tartean izango diren emarien estimazioa, kenduko diren emarien erregimena aurreikustea eta migrazio edo desplazamendu aroan arrainak igarotzeko emari egokiena zein izango den kuantitatiboki zehaztea.
- d) Dikeen edo arrapalen neurriak edo ibai artifizialak justifikatzea. Zehazki:
 - Xurgatutako energia edo fluxu-abiaduren ezaugarriak, helburutzat hartutako espezieen, aska-eskalen eta antzekoen arteko jauzien baldintzei dagokienez, besteak beste.
 - Sakonerak ibilguan.
 - Aska arteko isuri mota. Ziprinidoentzat iragazkortu behar bada, isuri-mota «erdi-murgildua» izango da nahitaez, eta urpean ere zuloak eduki beharko ditu.
 - Ibaiak dituen gora-beheretarako egokiak diren emariantzako jauziaren funtzionamendu orokorra (eguneroko seriearen % 25 eta % 75eko gutxieneko baliozkotasuna). Eskalara ura sartzeko askan, isuria erregulatzea beharrezkoa den ala ez justifikatzea.
- e) Eraikitze sistema definitzea (sarbideak, ur-agorak, materialak, teknikak, lehendik zeuden presa txikiak partzialki botatzea, etab.)
- f) Ondorioen analisiak eta prebentziozko neurrien eta neurri zuzentzaileen proposamenak.
- g) Beheranzko migrazio-mugimenduak errazteko eta ubidearen sarreran harguneko deribazioko kanaletara arrain-faunarik sar ez dadin, beharrezko hesiak instalatu beharko dira (barren artean 2 zentimetroko argia duten burdin hesiak, hesi sonikoak, etab.) eta beharrezkoa ikusten bada, by-pass bat ere instalatu beharko zaio gailuari, sartzen den faunak ibaira itzultzeko modua izan dezan.